

SLUM.

Indiako auzo informalen sorrera eta ordezkapena



Ander Gortazar °

Gako-hitzak:
Slum,
talde-inteligenzia,
Dharavi,
Mumbai.

Slum (ingelesezik):

1. adiera: auzo, auzune; errebal, aldiri
2. adiera: txerritegi, txerritoki, txerri-korta, itoi, urdandegi
3. adiera: txabola, borda, etxola, ola

Ohikoa da, Ekialde Urrunean azken hamarkadetan gertatzen ari diren aldaketa sozioekonomikoak aztertzerakoan, puntu bat azpimarratzea beste edozein ezaugarriren gaineratik: aldaketaren dimentsioa. Kualitatiboki, aldaketa hauen logika erraz azal daiteke lehenago Europan edo Ameriketako gertatutakoa ulertuz gero; kuantitatiboki, ordea, aldaketek mugitzen duten masa inoiz ikusi gabekoa da. Egoera hau oso agerikoa da urbanizazio-prozesuetan: Mumbaiko (India) Dharavi bezalako auzoak duela 50 urteko Bilboko Otxarkoagarekin aldera badaitezke ere, euren dimentsioa, eta ondorioz, hiriko funtzionamenduan duten eragina da desberdintasun nagusia.

Auzune informal eta txiro hauek, Mumbai bezalako hirietan biztanleriaren % 60 jasotzera iris daitezkeenak, erraz azaldu daitezke arkitektoaren irudia aipatu ere egin gabe. Jaiotzetik heriotzara. Izan ere, banakako ekintzen batuketak berez, pixkanaka, sortu duena suntsitze-bidean da merkatuaren indarraren eraginez, arkitektura-diziplinak ezer gutxi azal dezakeen prozesuan.

Arkitektoari gabeko arkitekturatik arkitektoari gabeko arkitekturara, beraz. Pauso itzela, halako artikulu xume batean azaltzeko.

I SORRERA

Egungo Mumbai zazpi irlaz osaturiko artxipelagoa zen. Dharavi eremu zingiratsua zen, eta bertako biztanleak, koli etniakoak, arrantzatik bizi ziren. XIX. mendearen amaieran, presa baten eraikuntzak ingurua lehortu eta Bombay handiaren sorrerari eman zion bide. Harrezkero, Dharavik ez dio jendea jasotzeari utzi, buzingintza eta ehungintzari lotuta hasieran, ia edozein jarduera ekonomikoren ingurukoa gaur egun. ‘Sektore bat, etnia bat’ arau ez-idatziari jarraiki, Mendebaldeko ikuslearentzat sumatzen zaila den aniztasuna du auzoak.

“*Guk eraiki genuen*”, diote Dharavin hainbat belaunaldi daramatzaten familietako kideek. Izan ere, Mumbaiko prezio garestiegietatik ihesi (lurraren salneurria Tokio edo Londresen parekoa baita egun), lurrok hartu zituzten etorkin hauek guztiek, eta bertan eraiki ahal zuten moduan: buztina, egur pusketak, plastikoa eta metalezko xafiak gehienetan; adreilua eta harria zortea izanez gero.

Emaitza bizpahiru pisuko unitate txikiz osaturiko sare dentsua da; kaotikoa itxura batean, baina konplexutasunez bete. Swarm Intelligence (talde-inteligenzia) kontzeptuak azal dezakeen egoera da: kontrol-egiturarik gabeko portaera orokor konplexua da, agente xinpelen bakarkako portaeraren emaitza.



Dharaviko teilatuak lehen planoan, Mumbai berria urrunean

Agente bakoitzak besteei eta inguruari elkarreragiten diote arau errazei jarraiki, eta bakarkako interakzio hauen batuketa da egitura global konplexua azaleratzen duena.

Teoria honi jarraiki, hegan doazen hegazti multzoak lirateke Dharaviren garapena ulertzeko adibide perfektuak.

2 DHARAVI, DABILEN HIRIA

Mundu mailako depresio garaiotan, Dharaviren arrakasta ekonomikoa munduak ezagutu beharreko istorioa da - Bhau Korde (gizarte-langilea eta dharavitar petoa).

Auzunea deitzen diogu, baina hiria da Dharavi. Diziplina batek antolatu gabeko hiri autogestionatua, 800.000 arimadun organismo bizia. Eta hala funtzionatzen du hiriaren 3 adiera historikoak aintzat hartzen baditugu: *urbs*-en ikuspuntutik, inolako antolamendu eta arkitektura ofizialik gabeko gune fisikoa da; *civitas*-en aldetik, gizarte-egitura ofizialetatik at dagoen jendartea da, auzunetik atera gabe bizi eta lan egin dezakeena; *polis*-en ikuspuntutik ere, antolamendu politiko ia paraleloa dute, barne-kode bereziak.

Dharaviren dimentsio izugarriaz ari garenean, hala ere, ez gara soilik azalera eta biztanleriaz ari. Dharavi ezin baita ulertu bertako ekonomiaren dimentsioa ulertu gabe. 700 milioiko Barne Produktu Gordina zifra (hau ere) gordinak hotz utz dezake irakurlea, datu hau Indiako hirien batez bestekoa baino % 30 handiagoa bada ere.

Mixed use edo erabilera anitzeko auzoak ahotan darabilzki-gun garaiotan, Dharavi bezalako auzuneak kontzeptu horren adibide onenak bilakatu zaizkigu, ia nahi gabe. Are gehiago, esan dezakegu auzune hauetako behe-oinak ezinbestekoak direla Mumbai metropoliak funtziona dezan: bertan ekoizten dira hoteletako gosarietako croissant-ak, hortzetako pasta eta xaboiak, bai eta hiri-erdiko (eta munduko edozein bazterretako) merkatuetan salduko diren arropa, zeramika-lan eta produktu digitalak. Bertan konpontzen dira rickshaw eta taxiak, telebista, telefono eta ordenagailuak, eta produktu hauen guztien gainetik jarduera garrantzitsuen: birziklapenaren industria, lan-irteera logikoa hiriko zabortege handienaren ondoan bizi diren auzokideentzat. Papera eta kartoia, ontziak, beira; eko etiketa nekez jasoko luketen etxoletan gora eta behera.

Ez zitzaion arrazoirik falta Mumbairen bihotza barik, Dharavi Mumbairen motorra zela esan zuenari.

3 ORDEZKAPEN-PROZESUA

Mumbai, baina, handituz doa, eta garai bateko hiriaren kanpoaldean sortu ziren slum hauek metropoliaren (eta, beraz, merkatuaren) eremu preziatuenetan daude egun. Testuinguru honetan erraz ulertzen da *Slum Rehabilitation Project* delako tresna, auzo informal hauen (ustezko) arazoei aurre egiteko konponbide gisa erabiltzen dena. Ustez, berriz ere.



Slum Rehabilitation prozesuen ohiko etxebizitza-tipologia, Mumbai



Saki-Naka auzunea, Mumbai

Slum Rehabilitation-ek tokian bertan berreraikitzeari egiten dio erreferentzia. Estrategia honen bitartez, inbertsiogileek lurraren jabegoa bereganatzen dute; bizilagunek, aldiz, doako etxebizitza auzoan bertan (edo, hobeki esanda, auzoa zegoen lekuan bertan). Axioma hau ez da hain sinplea, ordea, eta agerian uzten du Arkitekturaren ezintasuna hiriarri forma ematen dioten indarren aurrean. Jar dezagun adibidetzat Dharavi, eta azter dezagun nola ordezkatu nahi duten *Slumdog Millionaire* filmak ezagun egin zuen auzoa.

- 800.000 biztanle inguru bizi dira Dharavin, Bilbo Handian bezain beste, baina 1,7 km²-ko azaleran. Dentsitatea, beraz, ia 6.000 biztanlekoa da hektarea bakoitzeko, Manhattanek egunean zehar halako sei.

- 800.000 bizilagun horietatik, ordea, "legalek" soilik dute etxe berria doan eskuratzeko eskubidea, zehatzago esanda, 1995ko zentsuan izena emanda zuten biztanleek. Baldintza honek auzokideen heren bat kale gorrian uzten du, auzune berri baten bila, sekula "legalak" izango ez direla jakitun.

- 550.000 biztanle ditugu, beraz, 1,7 km²-tan kokatzeko. Datu hau, baina, ez da guztiz zehatza, familia bakoitzak jasoko duen etxebizitza (lantokirik ez, datu azpimarragarria) 25 metro karratuko unitate bat baita, eta ondorioz, auzokideen bi heren legal horiek azaleraren laurden bakar batean pilatuko baitira.

- Handik aurrerakoa asmatzen erraza da, inbertsiogileek bidea garbi baitute orain eurenak diren lurren % 75 nahi beste ustiatzeko, mozkin handienaren ehizan: luxuzko etxebizitzek, merkataritza-guneek eta bulego-dorreek ematen diote forma Mumbai berriari; beste Mumbai berriari, alegia.

Urteak dira Dharaviren ordezkapen-prozesuaren makineria martxan dela, ordezkapen fisikoa atzeratzen ari bada ere. Auzoaren bizi-zikloa amaitzeaz da, eta paradoxa batekin gainera. Urteen poderioz, botere publiko eta arkitektura ofizialen eskuetatik at egon den hiri-puska honek mikro-ekonomia berezi bat sortu du. Are gehiago, esan genezake metropoliaren behar garrantzitsu ugari asetzen dituen organismoa dela, ez soilik Dharavi, *Slum* kontzeptua bera baizik. Eta horra hor paradoxa, baieztapean agian ausartegia: Dharavik biziraun behar duela, Mumbaik bizi nahi badu.

Hiri informalak biziraun behar du, ofizialak lanean segi dezan.

Bibliografia

- PUROHIT, H. eta FALCÓN, L. (ed.) (2010): *Development Studio (one): Saki-Naka & Asalfa*. IaaC, Institut d'arquitectura avançada de Catalunya, Barcelona.
- JACOBSON, M. (2007): *Mumbai's Shadow City*, National Geographic - [<http://ttiki.com/30528>]
- The Economist (2007): *Poverty in India, A soul-searching business* - [<http://ttiki.com/30530>]
- The Economist (2007): *Recycling, A flourishing slum* - [<http://ttiki.com/30529>]

° Ander Gortazar arkitektoa da.

